



ONDARROAKO UDALA

1

UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/2

Eguna: 2012-03-07

Hasiera-Amaiera: 18:35 - 20:15

Tokia: Batzar-gela 2

UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

Batzartutakoak:

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Iera Arantzamendi	Udal Euskara lantaldeko kidea
Itxasne Murillo	Txomin Agirre ikastolako ordezkaria
Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
Imanol Oruemazaga	Ondarroako Historiazaleak taldeko ordezkaria

Batzordearen idazkaria:

Maite Rey

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Miren Urresti	EAJren ordezkaria
Txomin L. Aramaio	AEKren, Radixu irriatiaren eta Kafe Antzokiaren ordezkaria
Eduarne Arantzamendi	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria
Gurutzne Anakabe	Zaldupeko eskolako ordezkaria
Eladino Gonzalez	Ondarroako Osasun Zentroko arduraduna
Mikel Santiso	Antiguako Ama Arrantza Eskolako ordezkaria

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.
2. Abian jarritako ekintzen gaineko informazioa:
 - Aisa ikastaroak.
 - Letren Jaialdiaren antolamenduaren berri ematea.
 - Euskaraz bizi nahi dut lasterketa Kontseiluak antolatua.
3. Diru-laguntza deialdi hauek onartzeko proposamena:
 - Euskara ikastaroak egin dituzten herritarrentzat.
 - Ekonomia jardueretan euskara sustatzeko.
 - Euskararen sustapenerako.
4. Ondarroako Udala UEMAn sartzeko proposamena.
5. Lea-Artibaiko Aek-rekin hitzarmena sinatzeko proposamena.
6. Elkar argitaletxearekin hitzarmena sinatzeko proposamena Augustin Zubikarai Nobela Saria antolatzeko.
7. Eskariak eta galderak.



ONDARROAKO UDALA

UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/2

Eguna: 2012-03-07

Hasiera-Amaiera: 18:35 - 20:15

Tokia: Batzar-gela 2

Esan-eginak:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.

Ez da egon iruzkinik batere.

2. Abian jarritako ekintzen gaineko informazioa.

- Aisa ikastaroak.
Idazkariak azaldu du gaia: talde bi egin dira, bata goizez eta bestea arratsaldez, guztira 28 lagun daude ikastaroa egiten ekaina arte. Materiala Udalak erosi du eta AEK-ri ordainduko zaio ikastaroaren gastua.
- Letren Jaialdiaren antolamenduaren berri ematea.
Idazkariak azaldu du otsailaren 8an egin zela batzar bat Letren Jaialdia nola egin zehazteko eta bertan adostu zen, aurten, Letren Jaialdiaren edizio bi egitea: bata 2011-2012 ikasturteari dagokiona, apirilaren 20an, eta bestea, udazkenean, 2012ko azaroan, bat egingo lukeena Batzordeak literatura inguruan egiteko asmoa duen ekitaldi nagusiarekin.
- Euskaraz bizi nahi dut lasterketa Kontseiluak antolatua.
Idazkariak azaldu du gaia: Kontseiluak herri lasterketa bat egin nahi du irailean dirua lortzeko, *Euskaraz bizi nahi dut!* izango da leloa, aurten estreinakoa egingo da, 50 bat herritan, eta gero urtero antolatzeko asmoa dute. Udalari eskatzen diote azpiegiturarekin laguntzea: ibilbidea egin, hesiak eta zinta ipini, esataria, argazkiak atera eta abar. Izena emateko prezioa 10 €ingurukoa izango da. Batzordekideei ideia ona iruditu zaie, baina garestiegia prezioa.

3. Diru-laguntza deialdiak onartzeko proposamena.

Aztertu dira deialdiak. Batzordeburuak azaldu du Udalak taldeei arlo ezberdinetatik ematen dizkien diru-laguntzak aztertu eta ebazpena proposatzeko batzorde aztertzaile bat osatuko dela, honela: ordezkari politikoak (Bilduk 2 eta EAJk 1), Batzordeburuak (kultura, kirola, euskara...), udal idazkaria, udal batzordeetako teknikariak eta ordezkariak (1 arlo bakoitzeko).

Proposamenak aztertu dira eta batzordekideek ikusi dute zehaztasun hauek egin behar direla:

- Euskara ikastaroak egin dituzten herritarrentzat:



ONDARROAKO UDALA

3

UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/2

Eguna: 2012-03-07

Hasiera-Amaiera: 18:35 - 20:15

Tokia: Batzar-gela 2

- Segituko da diru-laguntzak ematen UEUko ikastaroak egiteko (matrikula gastuak, soilik).
- Euskara ikastaroak %100ean lagunduko ditu Udalak, baina behin bakarrik lagunduko du egindako maila bakoitzeko eta eskatzaileko.
- Behin %100eko diru-laguntza jaso badu eskatzaile batek maila jakin batengatik, ondorengo deialdietan maila horregatik beragatik eskaerarik egiten badu, sistema orokorra aplikatuko zaio (%80 ala %40, egoeraren arabera dagokiona).
- Euskararen sustapenerako:
 - Aldatzea 6. artikulua, testu hau jasotzeko: % 100eko diru-laguntza emango da 1.000 €baino gutxiagoko proiektuetarako.
 - Irizpideetan hau jasotzea: Autofinantzazioa, alegia, diru-sarrera propioak izatea, 3 puntu, gehienez, eta haur eta gazteentzako ekintzak izatea, 5 puntu, gehienez.

4. Ondarroako Udala UEMAn sartzeko proposamena.

Udal euskara batzordeburuak azaldu du gaia. Laburbildu du Ondarroako Udalaren ibilera Udallerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA), nola 2000. urtean sartu zen, orduan indarrean zeuden estatutuak onartuta eta nola, urte batzuk beranduago, estatutu horiek direla-eta, epaitegiek kanporatzeko agindua eman zuten. Harrez gero, UEMAk beste estatutu batzuk onartu baditu ere, Udala kanpoan geratu da.

Orain, berriz, harremanetan jarri dira Udaleko Eskara lantaldekoak UEMAKo zuzendaritzarekin eta aztertu dituzte UEMAn berriro sartzeko eman beharreko pausuak. Kronograma bat egin dute ekaineko Batzar Nagusiak Ondarroako Udalaren eskaera onartzeko moduan. Ondarroako Udalbatzak apirilean onartuko balu, erabakiaren iragarkia zabaldu eta beharrezko epea emango litzateke erreklamazioak aurkezteko, eta hori guztia egindakoan UEMAKo Zuendaritzak ekainaren 9an UEMA egunean onartuko lukete Udalaren eskaera.

Horrekin lotuta komunikazio-ekintza batzuk adostu dituzte UEMAKo zuzendaritzarekin azaltzeko udaleko arduradun politikoei, udal langileei, herritarrei zein herriko taldeei eta euskalgintzari zergatik sartuko den Ondarroko Udala UEMAn, zer den eta zer helburu dituen.

Horiek horrela, batzordeburuak proposatu du Ondarroako Udala UEMAn sartzea.

Segidan, bozketa egin da. EAJ udal taldeko ordezkariak ezin etorria adierazi zuen; beraz, ez du parte hartu bozketan. Eta horrenbestez, hauxe izan da emaitza: aho batez onartu da egindako proposamena.



ONDARROAKO UDALA

4

UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/2

Eguna: 2012-03-07

Hasiera-Amaiera: 18:35 - 20:15

Tokia: Batzar-gela 2

5. Lea-Artibaiko Aek-rekin hitzarmena sinatzeko proposamena.

Batzordeburuak honela azaldu du gaia: Aek-prestatu zuen hasierako zirriborro bat, harrezkero, batzar batzuk egin dituzte Udaleko eta AEK-ko ordezkariak eta, horren arabera, Udalak prestatu du hitzarmen bat AEKri aurkezteko. Bata eta bestearen artean dagoen aldea ere azaldu du: Udalak ezinbestekoa ikusten du 5.000 € ematea AEKri lokala ordaintzen laguntzeko, eta ez ikasle-kopuruaren arabera; hortik kanpo geratzen dira garbiketa, ura eta argindar gastuak. Bestalde, batzordeburuak esan du hitzarmena egiteak ez diola biderik ixten AEKri diru-laguntza deialdira aurkezteko.

6. Elkar argitaletxearekin hitzarmena sinatzeko proposamena Augustin Zubikarai Nobela Saria antolatzeko.

Batzordeburuak azaldu du formalizatu nahi dela Elkar argitaletxearekin Ondarroako Udalak egiten duen elkarlana, alegia, orain arte bezala, Udalak epaimahai bi eta diru-saria (6.000 euroko diru-kopuru gordina) ipiniko ditu eta Elkarrek, berriz, liburua argitaratu; eta publizitatea koordinatuta egitea.

7. Eskariak eta galderak.

Imanol Oruemazagak galdetu du HITZARI diru-laguntza emateko asmorik ote duen Udalak eta batzordeburuak erantzun dio baietz. HITZAKOek 3 € eskatzen zuten biztanleko, baina egoera ekonomikoa kontuan izanda, 9.000 €ko diru-laguntza bat emateko asmoa dagoela.

Amaitu aurretik, beste aztergai bat aztertzeko eskaera egin du batzordeburuak: Irrien Lagunak proiektua. Batzordekideak ados egon dira eta gaia aztertu da.

Batzordeburuak azaldu du nola *Irrien Lagunak* Kluba antolatzen dutenekin batzar bat egin zuela eta batzarrean geratu ziren aurkezpena egitekotan Ondarroan, datorren astean. Udalari proiektua bultzatu behar dela iruditzen zaio; izan ere, Klubaren helburua da komunikazio proiektu sendo bat sortzea Euskal Herriko haurrei eta hauen hezkuntza prozesuan parte hartzen duten kolektibo guztiei zuzenduta. Proiektu horren atzean daude BERRIA egunkaria, KATXIPORRETA pailazo-taldea eta ELKAR argitaletxea.

Harpidetza eskatzen diote Udalari Irrien laguna aldizkaria 3 urtetik 8 urtera bitarteko haurrek jasotzeko, adin horretako haurrak dabilzan tokietan, hala nola, Txirimorraski, ambulatorioa, ikastetxeak, gelako 10 aldizkari urtean. Guztira, 900,00 € suposatuko luke eta, horrez gain, kultura arloak antolatzen dituen ikuskizunetan deskontuak egingo lirarteke. Batzordeburuak onartzeko proposamena egin du haurrentzako eskaintza erakargarria izateaz gain euskararen aldeko mezua zabaltzen duelako, eta beste balore batzuk ere bai.



ONDARROAKO UDALA

UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/2

Eguna: 2012-03-07

Hasiera-Amaiera: 18:35 - 20:15

Tokia: Batzar-gela 2

Udala prest dago bide horretan laguntzeko eta hori guztia azaltzeko hitzordua jarri dute Ondarroan, 2012-03-19n, astelehena, Kodrafia Zaharreko 2. Pisuari, 18:00etan, horretan zerkusia eta interesa izan ditzaketen herriko elkarte ezberdinekin.

Batzordekideak ados egon dira harpidetzak egiteko proposamenarekin.

ERABAKIAK

- Batzar-agiri hau onartu da: 2012-01-11koa
- Ondarroako Udala UEMAn sartzeko proposamena onartzea.
- Diru-laguntza deialdiak batera egitea euskararen sustapenerako deialdia egiten denean eta, bien bitartean, diru-laguntza deialdi hauek onartu dira:
 - Euskara ikastaroak egin dituzten herritarrentzat.
 - Ekonomia jardueretan euskara sustatzeko.
- Irria aldizkariko harpidetza hartzea Udalak (900,00 €ko gastua)
- Hurrengo batzar-eguna onartu da: 2012ko martxoak 27, 18:00etan.

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua
Leire Beitia

Idazkaria
Maite Rey